

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatu desberdinak daude bezeroen arabera sailkatu ditzazkegunak:

**MERKATU MASIBOA:** Behar eta arazo antzekoak dituzten kontsumitzaile taldeari zuzenduta dago.

**MERKATU-NITXOA:** Bezero zehatzak eta berezituak dira.

**SEGMENTUTAKO MERKATUA:** Merkatu segmentu hau behar eta arazo zertxobait ezberdina dituzten kontsumitzaileei zuzenduta dago.

**DIBERTSIFIKATUTAKO MERKATUA** Merkatu honetako enpresek produktu oso desberdinak kaleratzen dituzte eta bezero segmentu oso desberdinei bideratuta dago.

**PLATAFORMA EDOTA MERKATU ALDEANIZTUNAK** Merkatuaren ezaugarriak desberdinak badira ere, erabiltzaile-segmentuak negozio ereduen mende daude.



Gure enpresak eskaintzen duen produktuaren xede nagusia eskolak izango dira, bereziki hauei zuzenduta izango da eta gure produktua ( arbelak garbitzekoa ).

Hala ere, zenbait enpresa eta erosle partikular izan ditzakegula ere aurreikusi dugu, merkatu nitxo batera gidatuko dugularik gure enpresaren jarduera. Honen arrazoia produktuak eskolen oinarrizko behar bat asetzea ahalbidetzea da. ( Produktua arbelak azkar eta ongi garbitzeko tresna da, eta eskoletan arbelak ezinbesteko dira gaur egun. Hortaz, eskolek produktu honen beharra izango dute, honen erabilgarritasunari erreparatuz )